

542/2024 EBAZPENA, UZTAILAREN 17KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ HUTSIK UZTEN DEN EKAINAREN 10EKO 435/2024 EBAZPENEAN ARGITARATUTAKO DEIALDIA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN KSU-KO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKO LANPOSTU BAT BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUN, ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 10eko 435/2024 Ebazpenaren bidez deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian KSUko Fakultatibo Espezialista Mediko lanpostu bat behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko (2024ko ekainaren 17an argitaratu zen web-orrian).

ZUZENDARITZA	ZUZENDARIORDETZA	ZERBITZUA	HE / DERRIGORTASU N-DATA	DESTINO KOP.
Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza	Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza	2. HE - 2024- 02-22	1	Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza

EBAZTEN DUT

Hutsik uztea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian KSUko Fakultatibo Espezialista Mediko lanpostu bat behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia, izangai bakarrak uko egin diolako Balorazio Batzordeak proposatutako izendapen-proposamenari.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 17a.



Osakidetza
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA
Dirección de Recursos Humanos
Sin.: Luisa Larrauri Erenozaga

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA